



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,  
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico,  
Comercio, Hostelería y Turismo



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU

filmcommission  
DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

## **JULIO MEDEMEN LABURMETRAIAK AMAIERA EMAN DIO DONOSTIA 2016 “KALEBEGIAK” PELIKULAREN FILMAZIOARI, FILM COMMISSIONEKIN ELKARLANEAN FILMATUA**

- Urteko ekoizpenik garrantzitsuenetakoa da 2015eko filmazioetan hirian 6 milioi euro baino gehiagoko eragin ekonomikoa utzi duen sektore batentzat
- Filmeko 12 laburmetraiak azken urtean zehar grabatu dira eta proiektua postprodukzio fasean murgilduko da orain

Donostia 2016 eta Moriarti Produkzioak-en artean koproduzituriko pelikularen filmazioa atzo bukatu zen azken laburmetraiaren grabazioarekin: **Julio Medemen** “La ballena real”. Laburmetraia Kalebegiak ikus-entzunezko proiektuaren baitan kokatzen da, azken berrogeita hamar urteetan zinema hiriko eta inguruetako kultur eragile garrantzitsuena izan delakoaren egiaztatetik abiatu delarik ideia.

**Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak, Film Commissionen** bidez eta berorren ikus-entzunezko sektorea babesteko estrategiaren bidez, ‘Kalebegiak’ proiektuaren garapen, aurreprodukzio eta produkzioan parte hartu du, zeinaren bulegoa Ikus-Entzunezkoen Berrikuntza Gunean, Pi@n egon den. **Film Commissionek** udal baimenen eta bestelako instituzioen baimenen tramitazioan lagundu du eta laburmetraietarako lokalizazioen bilaketan ere eman du laguntza.

**Sustapen Ekonomikoko Zinegotziak, Ernesto Gascok**, hirian filmatu diren ikus-entzunezko sektorearen eragin ekonomikoa eta berorren babesa azpimarratu ditu. **“Donostiak ikus-entzunezko enpresa-ehun sendoa dauka, tokiko ekonomiaren parte dena, mota guztietako proiektuei kaudimenez aurre egiteko gai dena”**, azpimarratu zuen. Hurrengo ere nabarmendu nahi izan zuen: “enpresa hauen jarduerak Donostiaren irudia eta tokiko kultura hedatzen aguntzen du. Mundu osoko hiririk hoberenatarikoa daukagu filmaziorako, bertan lan egin duten profesionalak egiaztatu duten bezala”.

Bere aldetik, **Pablo Berásteguik, Donostia 2016ko Zuzendari Orokorrak**, proiektu honetan islatzen diren Hiriburutzaren balioak nabarmendu ditu. “Kalebegiak proiektuak ikuslearentzako oinarritzakoak diren balioak eskaintzen dituen istorio txiki multzoa erakutsiko du, gure hirian dagoen aniztasunaren isla: **hiriaren inguruko hamabi begirada dira**,



Hiri berritzailea  
Ciudad innovadora

fomentosanbastian.eus

espazio bereberan bat egiten duten hamabi istorio, ideia partekatu batekin: protagonisten arteko elkarbizitza”.

**Larrotxene** Kultur-Etxea, ikus-entzunezkoetan zentratua, beti egon da Kalebegiak proiektuaren bihotzean. Zentro honi lotutako hainbat gaztek hartu du parte 12 laburmetriak filmatzeko talde desberdinetan. Produkzio, soinu, argazkilaritza edota zuzendaritza artistiko lanetan aritu dira besteak beste. Gainera, pelikulak oinarri gisa darabiltzan 12 gidodetatik 3 dozenaka zinemagile gaztek parte harturiko lehiaketa bitartez aukeratu ziren. Kalebegiak programari esker, Donostia 2016k beren ikus-entzunezko sektoreko karrerak bultzatzen lagunduko du.

Donostia eta inguruetan badago hainbat zinemagile gailen eta Kalebegiak horren isla da. **15 zuzendari dira osotara proiektu honetan parte hartu dutenak**: Julio Medem, Imanol Uribe, Daniel Calparsoro, Gracia Querejeta, Telmo Esnal, Asier Altuna, Luiso Berdejo, Koldo Almandoz, Borja Cobeaga, Isabel Herguera, Izibene Oñederra, María Elorza, Mainer Fernández, Ekain Irigoien eta Iñaki Camacho.

**Film Commission**, filmazioetan bitartekotzaz arduratzen dena, ‘Kalebegiak’ proiektuko hamabi laburmetriaren grabaketa konplexuaren eskutik joan da momentu oro, filmazioetarako eszenatoki gisa hiriaren moldaeraztasuna eta tokiko industria balioan jartzen dituen proiektua, profesional nabarmenen eskutik, Goya saridun **Mitxel Gaztambide** gidoigilea kasu, **Jorge Gilekin** batera proiektuaren zuzendari lanetan ari dena, lokalizazio bilaketan ari diren pertsonak, produkzio taldeak, ekipamenduen alokairurako enpresak, **Karmele Soler** bezalako makillatzaileak, Goya saria makillaje onenari, Oscar sarietarako hautagai diren zuzendariak, **Jon Garaño** eta **Jose Mari Goenaga** kasu, postprodukzio enpresak, musikariak, eta abar. Portua izan da azken laburmetriaren filmaziorako aukeratutako eszenatokia, Julio Medem donostiarrak grabatua.

## 2015EKO FILMAZIOEN BALANTZEA

**2015ean, Donostiako Film Commissionek 103 filmazio eskaera erantzun ditu**, hirian 339 egunetan zehar filmaturiko ikus-entzunezko 86 proiektutan gauzatu direnak. Proiektu multzo honek 14,4 milioi euroko aurrekontua zeukan, zeinetan enpresek 2 milioi euroko zuzeneko inbertsioa aitortu duten Donostian. Produkzio hauen zeharkako inbertsioa 4,2 milioi eurokoa izan daitekeela balioesten da, **zeinaren guztizkoak 6,2 milioi euroko eragin ekonomikoa suposatzen duen hiriarentzat**. Eragin honi gehitu behar zaio filmazioek suposatzen duten hiriaren irudiaren proiektzioa, hau da, hiriko publizitate eta marketinari egiten dion ekarpena, turismoan duen eraginaz gain.

Joan den urtean, Film Commissionek 255 filmazio baimen baino gehiago kudeatu zituen. 5 film luze eta 5 film labur filmatu ziren. Hala ere, Donostian burutu ziren **grabazio gehienak telebistarako egin ziren, %53 izatera iritsiz, zinemako %11ko datuaren aurrean**. Film Commissionek erantzuna eman dien enpresa gehienak euskaldunak dira (%68), nahiz eta beste komunitate autonomoetako enpresak eta nazioarteko enpresak ere aurki ditzakegun, Frantzia, Erresuma Batua, Amerikako Estatu Batuak, Japon, Alemania, Portugal edo



*Hiri berritzailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus

Australiakoak kasu. Gainera, Movistar Plus, Café Fortaleza, Kaiku, Euskaltel, Sephora edo BM Supermerkatuak bezalako marken publizitate iragarki batzuentzako eszenatoki ere izan da hiria.

## FILM LUZEAK

Hirian filmatu ziren bost film luzeak hurrengoak izan ziren: 'Kalebegiak!', 'The night watchman', 'Zipi y Zape y la isla del capitán', 'Igelak' eta 'Operación Angola'.

- **'The night watchman'** udaberrian filmatu zen Artikutzan, ingelesez, aktore protagonista amerikarrekin, eta Impala Filmsek ekoiztu eta Miguel Ángel Jiménez Colmenarrek zuzendu zuen. Pelikulak Jacken istorioa kontatzen du, kartzelatik atera berri etxera itzultzen den 30 urteko gaztearena.
- **'Zipi y Zape y la Isla del Capitán'** pelikulak Elena Anaya izan zuen aktore-multzoaren baitan. Komiki entzutetsuko protagonistak hirira itzuli ziren aurreko zinemarako moldaketaren ostean eta Ametzagañako Parkea, Itsasargi Pasealekua eta Ulia Mendia hautatu zituzten eszenatoki gisa, probintziako beste hainbat eszenatokirekin batera. Oskar Santosek zuzendu du filmhau eta MOD Producciones, Zeta Cinema, Atresmedia Cine eta Kowalski Filmsen artean ekoiztu da.
- **'Igelak'** izan zen 2015ean filmaturiko azken film luzea. ABRA PROren proiektu berri hau, Gorka Otxoa protagonista duena eta Patxo Telleriak zuzendua, euskaraz filmatu zen. Altza eta Groseko auzoak aukeratu ziren eszenatoki gisa, Txomineko Artelekuko egoitzaz gain, eta bai Orona enpresako eta Donostiako auzitegietako egoitzako beste lokalizazio batzuk ere.
- **'Operación Angola'** film luze dokumental portugaldarraren hainbat eszena ere hirian grabatu ziren 2015. urtean.

## TELESAILAK

lazko telesail nabarmenen artean hurrengoak daude: **'Allí Abajo'** Antena 3 katearentzat Plano a Plano enpresak ekoiztua eta **'Lo Que Escondían Sus Ojos'** Tele 5 katearentzat Mod Pictures eta Mediasetek ekoiztua, biak ala biak udazkenean filmatuak. **'Aitaren Etxea'** ere filmatu zen ETBrentzako eta **'El Hijo de Caín'** Tele 5 katearentzako, Boomerang TV enpresak ekoiztua.

Azterriko ekoiztetxe eta telebisten artean, hurrengoak nabarmentzen dira: 'Un viaje Feliz', 'Paseos por Ciudades del Mundo', 'La Aventura de la Anguila', 'Culinary Journey', 'Sufers Blood'. ETBrentzako produkzioen artean 'Asko Maite Zaitut', 'Aitaren Etxea', 'Vaya Semanita', 'Sin ir Mas Lejos', 'Teknopolis', 'Izarrak Kanean' nabarmentzen dira, eta baita 'Kaixo 2016' programa ere, urte amaierako kanpaiak Tabakaleratik eman zituena. RTVErentzako programak ere grabatu dira, 'Cocina2' kasu. Telebistarako dokumentalek gai desberdinak jorratu dituzte eta hauen artean hiriarekiko lotura berezia du 'Chillida, Esku Huts' dokumentalak.



*Hiri berritzailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus

Bestalde, 2015ean protagonismoa izan zuten baina aurrez Donostian filmatu ziren bi pelikula ere badaude: 'Loreak', Oscar sarietako hautagaia eta 'Amama', Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko Sail Ofizialean parte-hartzaile.

Filmazioen errealizaziorako babes lanaz gain, **Donostia Film Commissionek hiriko sustapenerako hainbat ekintza burutu ditu, filmazioetarako eszenatokiek duten indarra nabarmentzeko:**

- **Erresuma Batuko** zinema ekoizpeneko profesionalen bisita hirira joan den ekainean.
- **Donostian filmatzeko aukerak** topaketa delegazio kanadar batekin, irailean Kursaalean.
- **%40 arteko deskontuak** Aquariumeko, Igeldo Mendiko eta Kursaaletako filmazioetan.

2016an, Kalebegiak proiektuaren ekoizpenaz gain, bi film luze gehiago filmatu dira hirian: **'Mes trésors'**, Jean Renorekin eta 'Loreak' taldearen pelikula berria, **'Aundiya'**.



*Hiri berritzailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus